

Ebazu buruketa hauek:

1. Aitorrek 175 € gastatu ditu supermerkatuan. Bazkide izateagatik % 12ko deskontua egiten diote. Kalkulatu ordaindu beharko duena.



EMAITZA:

2. Aitor konturatu da bere erosketak pisu handia duela eta etxera eramateko eskatu du; beraz, erosketaren azken prezioaren % 3 kobratzen diote. Zenbat ordaindu beharko du etxera eramateko?



EMAITZA:

3. Lucia 280 orrialdeko liburu bat irakurtzen ari da eta dagoeneko % 45 irakurri du. Zenbat orrialde geratzen zaizkio liburua amaitzeko?



EMAITZA: